

Sustapena:

NEKAZARITZA-SORTA

1.- Indarraldiaren datak

Sustapena 2025eko urriaren 1ean hasi eta 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten, bertan behera utzi edo luzatu egin ahal izango da edozein unetan, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapena erabili ahal izateko, 2025eko urriaren 1etik aurrera kontratatu beharko dira polizak, edozein dela ere haien efektu-data.

2.- Sustapena

Sustapeneko aseguruaren poliza berriak kontratatu eta kanpainaren baldintzak betetzen dituztenek, lehen urtean, 100 €-ko diru-itzultzea jasoko dute, baldin eta gutxienez 2 poliza kontratatzen badituzte, eta horietako bat behintzat AGROASEGURUetako produktuetako bat bada: Nekazaritza, Abeltzaintza, Akuikultura edo Basogintza Aseguru berri bat. Sustapeneko produktuen artean kontratatutako poliza gehigarri berri bakoitzeko 100 € gehiago itzuliko dira, 500 € ko mugarekin.

Era berean, enpresak AGROASEGURUetako produktuen poliza bat kontratatuta badu, guztira 500 €-tik gorako primarekin, eta sustapeneko aseguruetako bat kontratatzen badu, sustapena aplikatuko zaio.

3.- Sustapeneko produktuak

AGROASEGURUetako produktuak: Nekazaritza, Abeltzaintza, Akuikultura eta Basogintza Aseguruak.

Aseguruak: ETE-entzako Arrisku Anitzekoa, Istripuetako Kolektiboak, Bizitzako Kolektiboak, Erantzukizun Zibila (orokorra, profesionala, administratzaile eta goi-karguentzakoak), Ziberasegurua, Makinak Haustea, Ingurumenarekiko Erantzukizuna eta Kreditu Asegurua.

4.- Baldintza orokorrak

- Sustapena konpainia bakoitzaren kontratazio-arauen barruan aplikatuko zaie jarduera eta arriskuei.
- Caja Laboral Bancasegurosek bitartekotutako polizei aplikatuko zaie.
- Aseguru-konpainiak: Seguros Lagun Aro SA, Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER, Generali España Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros, HISCOX SArekin Espainiako sukurtsala, TELEFÓNICA SEGUROSen Espainiako sukurtsala, Zurich Insurance Europe AGren Espainiako sukurtsala, eta Compagnie Française d'Assurance pour le Commerce Extérieur (COFACE) konpainiaren Espainiako sukurtsala.
- Polizaren ordainketak LABORAL Kutxan egon behar du helbideratuta.
- Polizek, dirua itzultzeko eskubidea ematekotan, kontratatuta, ordainduta eta egunean egon beharko dute. Sustapenaz baliatzeko eskubidea ematen du(t)en poliza edo polizak ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeke.
- Sustapenaren parte diren polizek NAN edo IFZ berarekin egon beharko dute alta emanda.
- Itzulketaren gehieneko muga NAN/IFZ bakoitzeko: 500 €.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Gehieneko eragiketa-kopurua urtean: 100.
- Sustapenaz baliatzeko eskubidea ematen duen kontratatutako bigarren produktuaren ordainagiria ordaindu eta 60 egunera egingo da itzulketak.

5.- Produktuen baldintzak

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, AKUIKULTURA ETA BASOGINTZA ASEGURUAK

- Gutxienekeo prima: 500 €.
- Modulu osagarriak eta MÁŠ VALOR deritzenak ez dira sartzen.

ETE-entzako Arrisku anitzekoa / ERANTZUKIZUN ZIBILA / INGURUMENAREKIKO ERANTZUKIZUNA / ZIBERASEGURUA / MAKINAK HAUSTEA / KREDITU ASEGURUA.

- Gutxienekeo prima: 500 €.
- Modalitate guztietarako balio du.

ISTRIPUETAKO KOLEKTIBOAK

- Gutxienekeo prima: 100 €.
- Aldi baterako arriskuak ez dira sartzen.

BIZITZAKO KOLEKTIBOAK

- Gutxienekeo prima: 100 €.
- Hitzarmeneko polizetarako balio du.

6.- Sustatzailea

Aseguru honen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da. B75060988 zenbakiko IFK du eta banka-aseguruetao operadore lotetsia da. Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren Aseguru Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzailleak: Seguros Lagun Aro SA, Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER, Generali España Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros, HISCOX SAreñ Espainiako sukurtsala, TELEFÓNICA SEGUROSen Espainiako sukurtsala, Zurich Insurance Europe AGren Espainiako sukurtsala, eta Compagnie Française d'Assurance pour le Commerce Extérieur (COFACE) konpainiaren Espainiako sukurtsala. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzailleak hemen: www.aseguruak.laboralkutxa.eus.

7.- Aplikazio-eremua

Caja Laboral Popular banka-aseguruetao operadore lotetsiaren banaketa-sarea erabiliz kontratatutako aseguruetañ aplikatuko da kanpaina —erakundea Bitartekarien Erregistro Administrazio Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.